

## EDITORIALA

### Segidakoak

Ostiralero etorriko omen da murrizketa eta doikuntza gehiagoren berri. Xamurrak eta leunak balira bezala orain arte egindakoak! Ostiralei beldurra hartu behako bagenio bezala, ostirala iritsi bitartean egunerokoak kezkatzen du jende gehienak, eskubideen txizizioan arrapaladan baitatuz.

Besteak beste, zerbitzu publikoak dituzte jomugan. Oihartzun handia izan dute hezkuntzan eta osasungintzan harturiko neurri atzerakoiek, baina ez dira bakarrik izan, ezta izango ere. Hor ditugu menpekotasunari lotuak, gutxieneko errentakoak, gizarte zerbitzuetakoak eta abar luze bat. Denek, batzuk larriagoak izanda ere, ezau-garri eta estrategia berdinari erantzuten diote: eskubide sozialak urratu gastu publikoa murrizteko eta pribatizazio bideak irekitzeko. Jakinik neurriok ez gaituztela krisialditik irteten lagunduko eta lan-gabezia ez dela murriztuko, noren mesedekoak dira, bada neurriak? Ez al da berdin gertatzen negoziazio kolektiboaren erreformaz defentsa kolektiboa suntsitu asmoz hartutako erabakiarekin?

Neurri guztiak oso gogorrak dira eta herritarren haserre oldartu eta indartu daitekeelakoan, beste irtenbiderik ez baitzaigu uzten, eskubide politikoei ere eragingo dieten erabakiak mahai gainean jarriak dituzte. Greba eskubidea mugatuko dute, mobilizazioak kriminalizatu eta herri erantzuna zigortu. Kapitalak eta interes ekonomikoek ordetzatzen dituztenek ez dute onartzen erantzun oldarkorrik, bake soziala bermatu nahi dute bai ala bai eta bitarteko guztiak erabiliz. Hori da datorkigun mehatxua.

Euskal Herriko administrazio guztietako agintariei eskatzen diegu neurriok ez ditzatela hemen aplikatu. Horretarako borondate politikoa ekintzetan gauzatu behar da. Bitartean guk mobilizazioak bultzatzen jarraituko dugu. Gizarte eragileekin maiatzaren 20 eta 26an eta zerbitzu publikoetan maiatzaren 31ean greba egunerako segidako hitzorduak ditugu.

Más de 10.000 personas secundaron el Primero de Mayo convocado por ELA en Bilbao bajo el lema *Ezinbestez sindikatua*. Más que nunca

## “EL SINDICATO ES NUESTRA ÚNICA HERRAMIENTA DE DEFENSA”

**A**bril ha sido un mes lluvioso. Excepto el primero, todos los demás días del mes llovió en Euskal Herria. Alguien dirá que algún día tenía que parar, cierto es, y ese día no fue otro que el Primero de Mayo, día de la clase trabajadora. Tal vez sea fruto de la casualidad, pero más de una y de uno quiso ver una metáfora en los rayos de sol que calentaron Euskal Herria desde primera hora de la mañana.

Para las 11:30, hora de inicio de los actos programados para esta jornada de fiesta y reivindicación, ya eran miles las personas que abarrotaban los alrededores del Sagrado Corazón de Bilbao.

En el discurso con motivo del Primero de Mayo, el secretario general de ELA, Adolfo Muñoz, *Txiki*, destacó que “somos gente normal, con deseos normales; gente que quiere trabajo digno, que no quiere ser explotada. Esos deseos lógicos, que ELA hace suyos, dependen de la fuerza sindical. De nada más. Dependen de la fuerza del sindicato y el sindicato somos todos y todas. No hay más trabajo que aumentar la afiliación y la organización para quien quiera estar en condiciones de abordar esos contenidos. No habrá negociación colectiva en los ámbitos no sindicalizados”.

Durante su discurso Muñoz recalcó la necesidad de afiliarse y sindicalizarse, porque en la actual coyuntura económica el sindicato es la única herramienta de defensa que tiene la clase trabajadora.

“No hay salida individual; no vale el *sálvese quien pueda*. La insolidaridad nos destruye. Solo es útil la capacidad de defensa colectiva; la capacidad de organización que logremos en cada centro de trabajo. Ese es el debate y eso es el sindicato: organización de clase para la defensa de unos intereses,



los nuestros. El sindicato debe tener clara esa identidad y explicarla. No tenemos más que el sindicato, que es tanto como decir no tenemos más que la afiliación que consigamos para hacernos fuertes”.

“Los frutos en la negociación colectiva —añadió— van a ser proporcionales al nivel de afiliación que logremos en cada ámbito. Sabemos que la patronal ha obtenido lo que pedía y que quiere más. Solo se le podrá hacer frente desde un sindicalismo fuerte. El éxito de la huelga general hay que traducirlo en consolidación organizativa. Es imprescindible que así sea”.

Tras el discurso del secretario general, una animada y multitudinaria manifestación recorrió las principales calles de Bilbao. Y, tras la manifestación, gran parte de las más de 10.000 personas que secundaron el Primero de Mayo convocado por ELA se trasladaron al BEC de Barakaldo para continuar la fiesta: comida popular, juegos infantiles, conciertos...



**MAIATZAK 31 GREBA OROKORRA  
ZERBITZU PUBLIKOETAN  
ZERBITZU PUBLIKOAK DEFENDA DITZAGUN!**

ELAko idazkari nagusi Adolfo Muñoz Txiki-ren Maiatzaren Leheneko hitzaldiaren laburpena

# "SINDIKALISMOAK LANTOKIETAN INDARRA BEHAR DU"



## KATASTROFE POLITIKOA

Zein unetan bizi gara? Ez da zaila azaltzea harrapaketa bat nola egiten den. Amaiurrek Espainiako gobernuari eskatu dio eman ditzala Estatuko zor publikoa duten 50 izen handienak eman ditzala. Interesgarria litzateke hau ezagutzea. Badakizue gobernuak zer erantzun duen? Gai erreserbatua dela. Izan ere, izenak argitaratuz gero, etekina nork ateratzen duen jakingo baikenuke. Adibidez, zein finantza-erakunde ari den zor publikoarekin espekulatu: Europako Banku Zentraletik dirua %1ean hartu eta %6ean emanez. Konspirazio bat pairatzen ari gara, banku eta gobernuen arteko konspirazioa. Hori gutxi balitz, Nazioarteko Moneta Funtsak dio diru publiko gehiago behar izango dela banketxe pribatuak saneatzeko.

Murrizketarik murrizketa, osasungintza eta hezkuntza itxuragabe ari dira okertzen. Arlo publikoa txiki-txiki eginda uzten dute, pribatizaziotik etekinak lortzen dituztenen mesedetan. Horixe da beste helburu ezkutua.

## ESTATU NEOZENTRALISTA. OINARRI-LEGEAK POLITIKA ANTISOZIALETARAKO

Eskumenak erabat hustu dituzte. Oinarri-lege arbitrarioen bidez Estatuari itzuli nahi diote edozertan erabakitzeak ahalmena. Duela urte asko ezaguna genuen oinarri-legeen sistema, baina inoiz ez ziren hain urrun iritsi. Eta inoiz ez du inboluzioak hain lotura zuzena izan auzi sozialekin, euskal herritarren bizi-kalitatearekin.

Agian euskal klase politikoak ez zuen espero gizarte-gaiak hainbesteko pisua hartuko zuenik gure herrian politika egiterakoan. Haustekunde-esparruetako norgehiagoka –betiere zilegi dena– arlo soziala bigarren mailan kokatuta egin nahi dute, eta guretzat gai sozialek inoiz baino lehentasun handiagoa eskatzen dute. Jarrera politiko tinko eta sinesgarri bat eskatzen dugu. Murrizketak ez egitea da sinesgarri izaten hasteko modua.

## FISKALITATEA eta SOLIDARITATEA

Harrigarria da Rajoyk PFEZean eta Sozietateen zergan euskal ogasunek baino gehiago egin izana. Ekonomia-Itunaz eta Hitzarmen Ekonomikoaz egiten den erabilpen antisoziala salatu behar da. Arau-emateko ahalmena patronalaren eskariak betetzeko erabiltzen da. Zoritxarrez ez dago aldatarik, eta hau berdin gertatzen da Bizkaian, Gipuzkoan, Araban zein Nafarroan. Desberdintasunak xehetasunetan daude. Oso larria da, latza, behar soziala inoiz baino handiagoa delarik gure Ogasunek opari fiskalak bertan behera uzteko aukerari uko egitea eta iruzur fiskalarekiko ez ikusiarena egitea.

## SOLDATAK JAISTEKO ERREFORMAK

Suntsitzen ari den enpleguari beste eraso bat gehitu behar zaio, soldatei eta lan-baldintzei egiten ari direna. Horretarako egin dituzte erreforma laboralak eta negoziazio kolektiboaren erreforma. Erreformek negoziazio kolektiboa, ezagutzen genuen modukoa bederen, txikitu egin dute: hemendik aurrera ezer ez da berdina izango. Horretarako egin dute, soldatak merkatzeko, malgutasun handiagoa lortzeko eta gure defentsa kolektiboa ahultzeko.

Sektorea ez da jadanik gutxieneko oinarria. Soldatak jaiste aldera erabaki dute hori. Ez dakit honek zenbaterainoko hondamena ekar dezakeen. Ba ote dakigu aldateta bakoitzak negoziazio kolektiboan dituen ondorioak? Oso gogorrek dira.

Ondorio horretatik hasita... Zein da erreformak botatzen digun erronkarik handiena? Zuzenean esaten digu: antolatzeke gai ez bazarete, sufritu egingo duzue; zuek eta zuen lan-baldintzek. Antolakuntzari buruz egin beharrekoak galdegiten digu. Hori da atera beharreko ondorio nagusia. Ez gaitetzen eskenatoki birtualetan ibili; ez dugu ezer irabazten eskenatokiak asmatuz, are gutxiago patronalaren eskutik joanda,

berak nahi zuen gutzia lortu baitu eta xantaia egiten baitigu, pribilegiozko jarreraren dagoela badakielako. Etsaia ez dugu gutxietsi behar. Erreforma hauek zein arazo eragiten dizkiguten ikusi eta hortik abiatuta egin behar dugu lan, aurre egiteko. Ezin dugu geure burua engainatu.

Soldatak jaustek onorio izugarriak izango litzuke; batetik, enplegua dutenen bizi-kalitatearen kalterako, eta bestetik, lanpostu gehiago galduko liratekeelako. Gauza bera patronalak eskatzen duen bezala lanaldia luzatuz gero. Izan ere, zer bilatzen du patronalak? Lanean jende gutxiago edukita, ordu gehiago sartzea, malguago eta lan gehiago egiten dutelarik.

Hori da bere produktibitate ikuskerara: Enplegu gutxiago eta produkzio handiagoa. Joko hori onartuz gero lanpostu gehiago galduko lirateke. Patronalak honelako proposamenekin gauza bakarra defenditzen du, bere etekinak. Besterik ez.

## LEGEEN BIDEZ LAN-BALDINTZAK ESTATU-ESPARRUETARA ETA ENPRESETARA ERAMATEA ERABAKI DUTE

Badakigu zentralizazioak euskal esparrukoak baino hitzarmen askoz okerragoak ekartzen dituela. Eta ugazabak sinetsita daude enpresa mailan baldintza okerragoak ezarri ahal izango dituztela, esparru horretan ahulezia sindikala dagoela uste dutelako; enpresarioentzat moldagarria da negoziazio era hori.

Bada, ikusarazi behar diegu hori ez dela horrela; antolatzeke gauza bagara, ez dela sindikatua saihesteko erreformarik izango.

Horrek, noski, konpromiso sindikal handia eskatzen du; eta proiektu kolektibo bati lotutako militantzia, betiere proiektu horrek nor defenditzen duen eta lanean norentzat ari den argi badauka.

Ez dago banakako irtenbiderik. Solidaritatek ezak txikitu egiten gaitu. Defentsa kolektiborako gaitasuna da bide egokia; hots, lantoki bakoitzean lor dezakegun antolakuntza maila. Hori da eztabaida; hori da sindikatua: interes jakin batzuk, gure interesak, defenditzeko klase-erakundea. Sindikatuak nortasun hau argi izan behar du, eta azaldu beharra dauka. Sindikatua beste ezer ez daukagu: indartsu izateko lortzen dugun afiliazioa besterik ez daukagu.

Negoiziak kolektiboaren emaitzak esparru bakoitzean lortzen den afiliazio mailaren arabera izango dira. Badakigu patronalak eskatzen zuena jaso duela, eta gehiago eskatzen ari dela.

Sindikalismo indartsu batek bakarrik egin diezairoke aurre. Greba orokorrak izan zuen arrakasta antolakuntza finantzatzeko baliatu behar dugu. Hau ezinbestekoa da.

## LAN-BALDINTZA TXARRAK ETA EKINTZA SINDIKALA

Esplotazio baldintzetan lanean ari den jende ugari dago: eguneko 12 orduko lanaldiekin, orduko 4 eta 5 euroko soldatarekin; enpresarioak ordu-tegia nahierara aldatzen duela; EREak aurkeztu ahala soldatak jaisteko xantaia egiten delarik; *hitzarmenetik kanpo* dauden langileak, onartu ezin diren baldintzekin; soldata jaitea onartu ezean Kamerunera bidaltzeko mehatxuak... Jende asko, lankide asko sindikatuaren beharrean dago. Eta enpresario asko prest dago erreformari esker pertsonak, gure jendea, salgai moduan erabiltzeko.

Enplegua eta hitzarmenak defenditzeko gatazkak bata bestearen atzetik bizi ditugu. DEMAN, Tubos Reunidos, Negarra, Urbaser, Tuterako lorazainak, Konecta (Iberdrolako azpikontrata honek langileak absentismoaren aitzakiaz kaleratu ditu), CAFeko garbitasuna, SOS Deiak, arlo publikoko mobilizazioak, Grupo Amma Nafarroan, Metroa, Jaietan Jai merkataritzako mobilizazioak...

## SINDIKALISMOAK LANTOKIETAN INDARRA BEHAR DU

Hautan ez badago, enpresetan benetako pisurik ez badu, ez da inon izango, eta ez dute ezertarako balio sindikatu batzuri botatzen dizkieten loreak eta goraiatzen den jokabide *arduratsua*. ELA erronka horri aurre egiteko prest dago. ELAk baliagarri izan nahi du, eta bere klase-nortasunari leial. Gauza bat galarazi nahi dugu: Lan-baldintzak enpresarioek alde bakarreko erabakiz ezartzea.

Jende normala gara, eta gure nahiak ere normalak dira; lan duina nahi dugu. Ez gaude hemen esplota gaitzaten. ELAk bere egin dituen nahi logiko hauek indar sindikalaren arabera gauzatu dira, eta sindikatuaren indarra guztiok gara.

Egiteko bakarra daukagu: afiliatu kopurua gehitu eta antolakuntza hobetzea, eduki horiei heltzeko prest dagoenarentzat. Argi dago sindikalizatu gabeko esparruetan ez dela negoziazio kolektiborik izango.

## ALIANZTA SINDIKAL ETA SOZIALAK

Aliantza sindikal eta sozial bat indartu behar da, proposamenak eta mobilizazio egutegia partekatzen duen aliantza; honek ezin dio inongo babesik eman murrizketak aplikatzen dituen botere politiko eta ekonomikoari. Elkarrekin lan egin eta gure proposamenak sozializatuko ditugu gizartea mobilizatzeko. ELA hori posible egiten saiatuko da.

Oso beharrezkoak gara. Lan sindikal eta sozialean ari zareteno egiten duzuen aitortu egin behar zaizue. Sindikatuaren militanteo. Esker onez aitortu behar da eguneko egun jende anonimoak egiten duen ezinbesteko lan hori. Zuen lan hori.

**ELA, LAB, ESK y STEE-EILAS llaman a los trabajadores/as a movilizarse contra los recortes laborales y las políticas encaminadas a dismantlar los servicios públicos**

# 31 DE MAYO, HUELGA GENERAL EN LOS SERVICIOS PÚBLICOS



**De izquierda a derecha, Arantxi Sarasola (LAB), José Ignacio Martínez (ESK), Belén Arrondo (STEE-EILAS) e Igor Eizagirre (ELA), antes de la rueda en la que anunciaron la huelga en los servicios públicos contra los recortes.**

ELA, LAB, ESK y STEE-EILAS han anunciado la realización a lo largo de este mes de mayo de numerosas movilizaciones en los servicios públicos de la CAPV y de Navarra, que culminarán el próximo 31 de mayo con una huelga general en el conjunto del sector. Es un paso más en la respuesta unitaria a los recortes que las distintas administraciones de Hego Euskal Herria vienen aplicando durante estos tres últimos años así como a las medidas antisociales y las políticas encaminadas a dismantlar los servicios públicos. Igor Eizagirre, secretario general de ELA-Gizalan, explica las razones de esta nueva convocatoria de huelga al tiempo que anima a los trabajadores/as públicos a apoyar y secundar las movilizaciones.

**-El ataque a lo público y a sus trabajadores y trabajadoras está siendo tremendo.**

-Así es. No han tenido ningún reparo en cambiar las leyes, romper las reglas de juego, despreñar la normativa laboral internacional o acabar con los derechos más básicos.

Con la excusa de hacer frente al déficit público, están imponiendo enormes recortes que afectan a los servicios básicos y al conjunto de la sociedad. Además, mienten continuamente. Aseguran, sin ninguna vergüenza, que las medidas tomadas son para hacer frente al paro cuando sus propios datos lo desmienten continuamente.

Los y las trabajadoras de los servicios públicos estamos sufriendo en nuestras condiciones laborales las políticas que nuestros gobernantes están aplicando para dismantlar el estado del bien-

tar, políticas de sumisión para favorecer a los bancos, empresas y poderosos, y que perjudican a la mayoría de la sociedad.

Tomando como base la ley de presupuestos, quieren acabar con la jornada de 35 horas, lograda mediante grandes movilizaciones. De igual manera y, amparándose en la misma ley, congelan los salarios y cierran las puertas a la posibilidad de realizar nuevas ofertas públicas de empleo.

Quieren acabar con las condiciones de trabajo recogidas en los convenios y fruto de años de lucha: alargar la jornada semanal, aumentar las horas lectivas, empeorar las condiciones de jubilación, congelar los sueldos, destruir empleo, obstaculizar la entrada al trabajo, no cumplir lo firmado...

¿Cuándo y cómo tendrán una oportunidad laboral ese 50% de jóvenes en paro, de mujeres, de inmigrantes, de trabajadores despedidos sin ninguna contemplación si se nos alarga la jornada y la edad laboral a los y las que estamos trabajando?

**-A estas medidas hay que sumar aquellas que el gobierno de Madrid ha impuesto o pretende imponer en educación, sanidad y en el resto de servicios públicos.**

-Así es. De consumarse se agravará aún más la situación creada con las ya adoptadas anteriormente por los diferentes gobiernos, medidas que van directamente en contra de la universalidad de esos servicios. Son recortes sobre recortes en detrimento del gasto social y de los servicios públicos.

La lista de medidas tomadas tanto por el estado como por las instituciones de Hego Euskal Herria es interminable. Todas en detrimento de las condiciones laborales de los y las trabajadoras, de los derechos de los usuarios y la mayoría social, y de las bases del bienestar social.

**-Tenéis unas exigencias muy concretas a las diferentes administraciones, tanto a Madrid como a las de Hego Euskal Herria. ¿Cuáles son?**

-Todas las administraciones han impuesto duros recortes a los servicios públicos y a sus trabajadores/as en los últimos tres años. Ahora, en algunos casos los comparten y, en otros, expresan su oposición, pero no toman la decisión de no aplicarlos.

Nuestras peticiones son muy claras: en primer lugar, que no acepten ni apliquen las medidas de Madrid. En segundo lugar, que dejen sin efecto las medidas restrictivas tomadas hasta ahora: las decididas en las diferentes Mesas

Generales de Función Pública, las impuestas en diferentes sectores, los recortes aplicados vía Presupuestos... Y, finalmente, que modifiquen las políticas fiscales y que refuercen los servicios públicos, hoy en día más necesarios que nunca.

Lo hemos repetido hasta la saciedad: existen otros caminos. No sirve realizar bonitos discursos mientras se amparan políticas neoliberales, se aceptan las peticiones de banqueros y empresarios, se da dinero barato y se compra caro vaciando así las arcas públicas...

Con la huelga del próximo 31 de mayo y las movilizaciones que tendrán lugar a lo largo de este mes, calentando motores para que la convocatoria sea un éxito, les decimos a nuestras administraciones que no vamos a quedarnos de brazos cruzados ante sus intentos de acabar con lo público y con las condiciones laborales que tanto nos ha costado lograr. Cualquier acción antisocial por su parte tendrá una reacción sindical.

## LANGILEON BEHARRA

ELA, LAB, STEE-EILAS eta ESK sindikatuok Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako zerbitzu publikoetako langileei dei argia luzatzen diegu orain arte burutu ditugun mobilizazioei jarraipen irmoa eman diezaiegun, murrizketak salatuz, jendartearekin protestetan bat eginez, gure kezkak eta proposamenak partekatuz eta maiatzaren 31rako deitzen dugun greban parte har dezaten.

Greba egun honen prestaketa bidean lan-zentroetan batzarrak, delegatuen elkarretaratzeak, neurri aurre egiteko moduak eta era ezberdinak protestak burutzeko proposamen zehatzak luzatuko ditugu ondorengo egunotan.

Zerbitzu publiko unibertsalak, kalitatezkoak eta doakoak aldarrikatzen ditugu, jendartearen oinarriko ongizatea bermatzeko ezinbestekoak baitira.

Energia sortzearen aldeko politikak egitea exijitzen diegu eta orain arteko enplegu suntsiketarekin amai dezatela.

Bertan negoziatzeko eta erabakitze erabateko ahalmena aldarrikatzen dugu, bertan bizi eta lan egiten dugun heinean bertako instituzioei exijitzen diegu neurri hauek ez ditzatela aplikatu eta zerbitzu publikoak indartu ditzatela.

Zerbitzu publikoetako langileon kalitatearen aurka borrokatzen jarraituko dugu, urteetan lortutakoa ezabatzea ez dugulako onartzen eta zerbitzu publikoaren kalitatearen bermea ere badirelako.



ELAk Lan eta Negoziazio Kolektiboaren Erreformaren inguruko formazio jardunaldia antolatu zuen maiatzaren 3an

## NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAZ AZTERGAI



Ezker-eskuin, Itziar Larrazabal, Luis Fernandez, Joseba Villarreal eta Haimar Kortabarria, negoziazio kolektiboaren egoeraren inguruko formazio jardunaldian

ELAren Nazio Kontseilua –Kongresuen arteko organo gorena– maiatzaren 3an bildu zen Bilbon. Batzarraren aurretik, goizean, negoziazio kolektiboari buruzko formazio jardunaldia egin zen. Arratsaldean, berriz, ohiko bilera. Bertan, besteak beste, egungo abagune ekonomiko, sozial eta politikoaren inguruko hausnarketa egin zen.

Negoiazio kolektiboaren inguruko formazio jardunaldiak gai nagusi bat izan zuen: otsailaren 10ean Partido Popularrak onartu zuen Lan eta Negoziazio Kolektiboaren erreforma eta bere ondorioak aztertzea. Egunari hasiera emateko Joseba Villarreal, negoziazio kolektiboko arduradunak, gaiaren hainbat hausnarketa luzatu zituen era laburrean. “Zertarako egiten dituzte erreforma hauek? Ba, hainbat gauzetarako: gure soldata jaisteko; defentsa kolektiborako ditugun tresnak ahultzeko; langile-jendea eskubiderik gabeko merkanztzia merkea bihurtzeko...”.

Egoera iraultzeko hainbat gako ere aipatu nahi izan zituen. “Erreformak gauza asko kendu dizkigu, eskubide asko narriatu ditu. Baina badago gauza bat kendu ez diguna, eta kentzerik izango ez duena: erasoei aurre egiteko enpresetan dugun antolatze gaitasuna. Eta hori da hain zuzen ELAk proposatzen duena. Utzi diguten horri heldu behar diogu, eta, hori gure esku dago, ez beste inoren esku”.

### ERREFORMAK JOKOAREN ARAUAK ALDATU DITU

Ondoren kabinete juridikoko kide Haimar Kortabarria hartu zuen hitza. Kortabarria erreformaren azterketa tekniko egin zuen. Kortabarria nabarmendu zuenez, erreformak jokoaren arauak aldatu ditu. “Hemendik aurrera enpresa izango da erreferentzia bakarra; legeak berak dio hori. Azken finean, bertan sinatzen dena bai ala bai aplikatzen da sinaduraren

une beretik, berdin diolarik une horretan beste edozein hitzarmen dagoen ala ez”.

Erreformaren alderdi juridikoa aztertu ostean, lau federazioen arduradunen txanda izan zen. ELA-hainbateko idazkari nagusi Luis Fernandezek federazioaren egungo errealitatearen azterketa egin zuen. “Hainbat-en 30 sektore-hitzarmen ditugu zabalik uneotan –guztien %72– eta 193 enpresa-hitzarmen –guztien %50a–. Hurrengo 21 hilabeteetan federazioko negoziazio kolektiboa zer izango den dago jokoan. Izan ere, 2012ko otsailaren indarrean sartu zen erreformak ultra-aktibitatea bi urtetara mugatzen duenez, ordurako berritzen ez diren hitzarmenak auzitan geldituko dira”.

Eraikuntzaren alorra bereziki aztertu zuen Fernandezek. “Zapaterok 2011ko ekainean onartu zuen erreformak negoziazio kolektiboa zentralizatu zuen; orain Rajoyk beste urrats bat eman du. Horretarako UGT eta CCOO sindikatuen ezinbesteko laguntza izan dute. Noski, guk ezin dugu 2014ko otsailera arte itxaron ea zer gertatzen den. Erreforma hauen kontrari aspaldi gaude borrokan, helburu garbi batekin: jendearengana iristea. Hori lortzen badugu, badakigu bat egingo dutela gurekin”.

ELA-Metaletik antolakuntza idazkari Itziar Larrazabalek hartu zuen hitza. Otsailean onartutako lan erreformak metalean ezagutu diren lan baldintzak hankaz gora jarri dituela aipatu zuen. Hala ere, erasoak lehenagotik datozena gogorazi nahi izan zuen. “Ezin dugu ahaztu metaleko lan-baldintzak oinarritzen zituen estruktura eraso handiak jaso dituela azken bi urteetan. Patronalak urteak daramatza gure hitzarmenak ustuz asmoz. Hau guztiaren adibide argia 2010. urtean Gipuzkoako metako hitzarmenean Adegik izan zuen jarrera dugu. Langileon mobilizazioaren ondorioz Adegik atzerapausorik jasotzen ez zuen akordioa sinatu behar izan zuen. Berriki operari ederra jaso dute Rajoyren eskutik. Oraingoan ere mobilizatu beste erremediorik ez digute utzi”.

Metaleko langileen asmoa zein den nabarmendu zuen Larrazabalek: Euskal Herriko metaleko enpresetan erreforma ez aplikatzea. “Gaur egun helburu hori lortzeko enpresa hitzarmenak dira modu egoki bakarra. Horrek ez du suposatzen, ezta gutxiagorik ere, mahai sektorialetan parte hartzen jarraituko ez dugunik. Araba, Bizkaia, Gipuzkoa zein Nafarroako mahaian parte hartzen, orriak banatzen eta jendea informatzen jarraituko dugu”.

### HAINBAT GAUZA ARGITZEKE

Mirari Irure, ELA-Zerbitzuakeko idazkari nagusia, izan zen federazioaren izenean egungo abagunea aztertu zuen laguna. Irurek salatu zuenez, Rajoyren erreformak hainbat ondorio utziko ditu langileengan. “Rajoyk Zapateroren erreformaren elementu guztiak are eta gehiago gogortu ditu. Hori arazo berri eta

garrantzitsu bat gehitu behar zaio: enpresako hitzarmenei lehenetsun osoa ematen zaie. Dagoeneko negoziazioa ez da eduki kontu hutsa, aplikazioa bera ere kolokan dago. Hitzarmen probintzialek ez dute modurik beren aplikazioa bermatzeko, eta Zerbitzuak horrek izugarriko erronkaren aurrean jartzen gaitu: nola ekin enpresako hitzarmenen negoziazioari? Baliozkoa al da estrategia hori sektore guztietarako?”.

Oraindik argitzeko hainbat gauza daudela onartu arren, Irurek argi du gauza batean ez dagoela zalan-tzarik. “Antolakuntza mailan aurrerapausoak eman behar ditugu derrigor, baldin eta erreforma honen eragina oztopatu nahi badugu. Erreformak botere asko eman dio patronalari. Horrek argi uzten digu borroka izango dela bide bakarra, eta denok dakigu zeintzuk diren gurea bezalako sindikatu batean borrokarako ditugun oinarriko bi elementuak: antolakuntza eta afiliazioa”.

Federazioen ordezkarien txanda amaitzeko Igor Eizagirre mintzatu zen, ELA-Gizalaneko idazkari nagusia. Azken urteetan jasotako erasoen errebaso egin zuen Eizagirrek, eta Administrazioa botere ekonomikoaren morroi gisa jokatzen duela nabarmendu zuen. “Argi eta garbi esango dut: zerbitzu publikoak suntsitu nahi dituzte. Egiten ari direna ikusi besterik ez dago. Zerbitzu publikoekin negoziatu egin nahi dute, eta, gainera, bertan ezartzen diren neurriak enpresa pribatuetarako abangoardia gisa erabili”.

Egoera honetan negoziazio kolektiboa egiten jarraitzearen garrantziaz ohartarazi zuen Eizagirrek. “Negoiazio kolektiboa egiten jarraitu behar dugu, langileen lan baldintzak hobetzeko eta aberastasunaren bidezko banaketa lortzeko dugun tresnarik eragin-korrena delako”.

### OTSOA ETORRI DA

Formazio jardunaldiari amaiera emateko ELAko idazkari nagusiak hartu zuen hitza. Adolfo Muñoz Txiki hausnarketa globala egin zuen. “Ipuinean bezala gertatu zaigu. ELAn aspaldi esaten ari ginen otsoa zeterrela; bada, otsoa heldu da. Erreformaz erreforma gauzak asko aldatu dira, eta agerikoa da erronka zail eta gogorra dugula aurretik. Baina, hori esanda, erronka horien parte handi bat gure esku dago. Gure antolatze eta borrokatze gaitasunean. Gure afiliatze eta enpresetan zabalteko gaitasunean. Eta, oso agerikoa den arren, gure esku dagoena gure esku dago”.

Egoeraren larritasunaz jabetzeko adibide bat jarri zuen Muñozek. “Ez dugu imaginatu ere egiten datorrena. Espainiar Estatuan inposatzen ari diren murrizketak lehenago ere inposatu dituzte beste herrialde askotan, eta denok dakigu egoera nola bukatu den leku horiek guztietan: pobrezia biderkatzea, babes soziala hutsaren hurrengo izatea, txirotze orokorra...”.

[www.ela-sindikatua.org](http://www.ela-sindikatua.org)

ELA **astekaria**

Barrainkua 13, Bilbao  
Tel. 94 403 77 00  
Fax 94 403 77 66

Dep. legal BI-199-00

[www.ela-sindikatua.org](http://www.ela-sindikatua.org)

Franqueo concertado  
nº 08/207